

XVII. IGANDEA URTEAN ZEHAR (C)

Otoitza

Jainko Jauna, Zugan uste on dutenen zaintzailea,
 Zu gabe ez da ezer sendorik, ez ezer santurik;
 erakutsiezaguzu zeure erruki ugaria;
 Zu gidari eta erakusle zaitugula,
 lurreko ondasunak erabil ditzagun
 zerukoak iristeko eran.
 Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Gn 18, 20-32

*Ez bedi haserretu nire Jauna,
 hizketan jarraitzen badut.*

Genesis liburutik

Egun haietan, Jaunak honela esan zuen: «Handia da Sodomaren eta Gomorraren kontrako salakuntza, eta astuna haien bekatua. Banoa behera eta ikusiko dut, egia den salakuntzak dioena. Eta egia ez bada, jakingo dut».

Gizonek, handik atera eta Sodomaruntz jo zuten; eta Jauna bitartean Abrahamekin zegoen. Eta Abrahamek esan zion: «Zintzoa ere galduko ote duzu gaiztoarekin batean? Behar bada, badira berrogeita hamar zintzo hirian. Hauek ere galduko ote dituzu. Barkamena ukatuko ote diozu hiriarri, berrogeita hamar zintzo hor izanik? Ezin Zuk horrelakorik egin! Zintzoa gaiztoarekin galdu, eta zintzoa eta gaiztoa zoritxar berekoak egin. Zuk ez horrelakorik! Mundu osoaren epaileak ez ote du zuzen epaituko?»

Eta Jaunak erantzun zion: «Sodomako hiri barruan berrogeita hamar zintzo aurkitzen baditut, hiri osoari barkatuko diot hauengatik».

Eta Abrahamek berriz: «Ausardia da benetan, hauts eta errauts naizen honek nire Jaunari hitzegitea. Berrogeita hamar, bost gutxi balira, bost horiengatik galduko ote duzu hiri osoa?» Eta Jaunak: «Berrogeita bost aurkitzen baditut, ez dut galduko». Oraindik ere Abrahamek: «Berrogei badira?» Jaunak erantzun: «Ez dut galduko, berrogei horiengatik».

Orduan Abrahamek esan zion: «Ez bedi haserretu nire Jauna, hizketan jarraitzen badut. Hogeita hamar balira?» Eta Jaunak erantzun: «Ez dut galduko, han hogeita hamar aurkitzen baditut». Abrahamek jarraitu zuen: «Begira, barkatu, ausardia da baina; eta hogeit balira?» Jaunak erantzun: «Ez dut galduko, hogeit horiengatik». «Ea!, ez bedi haserretu nire Jauna, nik berriz ere hitzegiten badut. Eta hamar balira?» Eta Jaunak esan: «Ez dut galduko, hamar horiengatik».

Eta Jauna Abrahamekin mintzatu ondoren, joan egin zen; eta Abraham bere etxera itzuli zen.

ERANTZUN SALMOA: Sal 137, 1-2a. 2bcd-3. 6-7. 8

R/. **Hots egin nizunean, entzun ninduzun, Jauna.**

Jauna, bihotz-bihotzez dizkizut eskerrak emango,
 nire hitzak entzun dituzulako.

Eresi egingo dizut aingeruen aurrean,
 ahazpeztuko naiz zure jauretxe santuan. R/.

Eskerrak emango dizkiot zure izenari
ona eta leiala zarelako,
zure hitzak baitu zure izena egin handiago.
Hots egin nizunean, entzun ninduzun,
eta nire bihotzean kemena indartu duzu. R/.

Benetan garai da Jauna, umilari dio begiratzen,
harroa, berriz, urrundik du ezagutzen.
Larrialdian nabilela Zuk bizkortzen nauzu,
nire etsaien haserrean aurka eskua didazu luzatzen,
eta zure eskuinak nau salbatzen. R/.

Bukatu du Jaunak nire alde hasia,
betiko dago, Jauna, zure maitasuna,
ez eskutik utzi zeure eskuz egin duzuna. R/.

II. IRAKURGAIA: Kol 2, 12-14

*Jainkoak Berarekin bizia eman zizuen,
zuen bekatu guztiak barkatuta.*

San Paulo Apostoluak Kolosarrei

Senideok: Kristorekin batean hobiratuak izan zaretenak Bataioan, Berarengan izan zarete
berpiztuak
ere, hilen artetik biztu zuen Jaungoikoaren ahalmenean sinetsirik.
Zeuen bekatuengatik hilda zeundetean, erdaindu gabe zeundetelako; baina Jainkoak Berarekin
bizia eman zizuen, zuen bekatu guztiak barkatuta. Ezereztu zuen gure kontra zegoen eta bere
hitzez gaitzesten gintuen zor agiria; erditik kendu zuen hura gurutzean josirik.

EBANJELIOA: Lk 11, 1-13

Aleluia: Erm 8, 15b

R/. Aleluia.

V/. Semetzarako Espiritua hartu duzue,
eta horrek hots eginarazten digu: «Abba! Aita!» R/.

Eska ezazue, eta emango zaizue.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, Jesus otoitz egiten ari zen leku batean; bukatu zuenean, esan zion bere ikasleetako
batek: «Jauna, erakutsiezaguzu otoitz egiten, Joanek bere ikasleei erakutsi zien bezala».
Hark esan zion: «Otoitz egitean, esan:
"Aita, santu izan bedi zure izena,
etor bedi zure erreinua,
emaguzu gure eguneroko ogia,

eta barka guri gure bekatuak
guk ere zordun guztiei
barkatzen diegunez gero;
eta ez gu tentaldira eraman"»).

Eta esan zien: «Zuetako batek badu adiskide bat, eta gauerdian harengana joan eta esaten dio: "Adiskide, emazkidazu ordainetan hiru ogi; lagun bat etorri zait bidez etxera, eta ez daukat zer emanik". Baina besteak erantzun dio barrutik: "Utz nazazu bakean! Atea itxita daukagu, eta haurrak eta denok ohean gaude; ezin ninteke jaiki ematera". Baina adiskide hark ate joka jarraitzen badu, hara zer diotsuedan Nik: adiskide bezala, ematera jaikitzen ez bada ere, haren lotsagabeagatik bederen, jaiki eta emango dizkio behar dituen guztiak».

Eta Nik hau diotsuet: «Eska ezazue, eta emango zaizue; bila ezazue, eta aurkituko duzue; jo atea, eta zabalduko zaizue; eskatzen duenak, hartzen du; bilatzen duenak, aurkitzen; eta atea jotzen duenari, zabalitzen zaio. Zuetako norbaitek, aita izanik, semeak ogia eskatuta, harria emango ote dio? Edota arraina eskatuta, sugea emango ote dio arrainaren orde? Edota arrautza eskatuta, luhartza emango ote dio? Beraz, zuek, gaiztoak izanik ere, zuen seme-alabei gauza onak ematen baldin badakizue, zenbatez gehiago emango die zeruko zuen Aitak Espiritu Santua, eskatzen diotenei!»

Oparigaien gainekoa

Onar, Jauna,
zure esku zabaletik hartuta ekarri ditugun eskaintzak;
misterio santu honek, zure graziaren indarrari esker,
santu egin dezala oraingo gure bizia
eta eraman gaitzala betiko zorionera.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Zeruko sakramentua hartu dugu, Jauna,
zure Semearen nekaldiaren betiko origarri:
Berak bere maitasun neurrigabea eman digun dohain hori
izan dakigula salbamenerako.
Jesu Kristo.